

# EH Bildu europar parlamenturako hurrengo hauteskundeetan aurrean

**A**zaroaren 5ean, Euskal Herria Bildu koalizioak datorren maiatzaren 22tik 25era bitartean ospatuko diren Europar Parlamentuko hauteskundeetan inguruan egiten duen hausnarketa, duen posizioa eta egiten duen eskaintza egin zuen publiko.

Komunikabideen aurrean aurkeztutako eskaintzaren ardatz nagusiaren oinarria EH Bilduk bi oinarri sendoren erabakitzeko eskubidea eta eraldaketa soziala – baitan sustatzeko asmoa duen hautagaitzarako erabakian dago.

Lerro hauetan, modu laburtuan, gure gogoeta oinarritu dugun testuingurua eta aipatutako oinarrien gainean hautagaitza bultzatzeko erreflexioaren inguruko planteamen-  
dua aurki daiteke.

Lehenik eta behin, zera azpimarratu nahi dugu: askapen sozial nahiz nazionalerako ibilbidea egiteko ezker eraldatzaile ikuspegitik, Europaren eraikuntza prozesua guztiz estrategikoa da.

Euskal Herria Bilduk argi du, askapen nazionalerako borroka, askapen sozialaren aldekoaren eskutik joan behar duela. Egungo Europar Batasunak ez ditu ez herritarren, ez herrien eskubide sozial, laboral, linguistiko eta aniztasun kulturala bermatzen.

Egungo eredia antzua da, eta horregatik aldarrikatzen dugu Europar Batasun desberdin bat. Beraz, ez dugu Europar Batasunaren eredia eraberritzea planteatzen, baizik eta prozesu eratzaille bat martxan jartzea. Horregatik, gure hautagaitzak eragile sozial, sindikal etb. Eskutik joan behar duelakoan gaude, herriak menperatzen dituen marko politiko, sozial eta ekonomikoa gainditzeko elkartanean.

Arrazoi ezberdinegatik, datozen hauteskundeetan testuinguru berezian ospatuko dira:

## Kontutan hartu beharreko elementuak:

–Europar Batasunak inposatutako murrizketen politikek jarraipena izango dute datozen urteetan, eta bere ondorio latzak gure langileek, pentsiodunek, gazteek eta gizarteak, oro har, pairatu beharko ditu. Erdu horren aurrean, EH Bilduk justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako eredia aldarrikatzen du.

–Espainiako Gobernuak, Troikaren aginduei jarraituz, inposatzen ari den erreformek langileria-urteetako

borrokaren ondorioz lortutako oinarritzko eskubide sozial eta laboralak kolokan jarri dituzte. Hori gutxi balitz, Estatu espainiarreko demokrazia eza eta korrupzioa bere dimentsio osoan azaleratu dira, argudio gehiago eta bultzada emanaz subiranotasunaren aldarrikapenari.

–Gatazkaren konponbideari eta bakearen eraikuntzari dagokionez, nazioarteko komunitatearen papera oso garrantzitsua da. Europar Batasunak ere protagonismo handiago hartu behar luke. Gatazkaren konponbidea sustatu ahal izateko, datozen urteetan Bruselan izango ditugun interlokuzioak indartzea ezinbestekoa izango da. Euskaldunok EBko hiritarrak garen heinean, euskal bakea afera europearra da.

–Europar Batasunaren baitako zabaltze mekanismoak abian jarri behar dira; estaturik gabe nazioek – Eskozia edo Catalunya kasu – Batasuneko kide izateko aukera izan dezaten. Europar Batasunaren baitan, estaturik gabeko nazioen erabakitzeko eskubidea gai zentrala izango da 2014. urtean eta hurrengoetan. Eskozia eta Catalunyako prozesu soberanistek eragina iznago dute Euskal Herria garatzen ari den askapen prozesuan. Euskal Herriak ahots propioa izan behar du Europar ireki behar den prozesu eratzaillean eta orokorrean, Herrien Europaren eraketan parte hartzeko.

## Laburbilduz:

–EHBilduk Bruselan eredu ekonomikoaren eraldaketa eta iraultza soziala errebindikatzea du asmoz. Europar Batasunaren prozesu eratzaille bat jarri behar du martxan; prozesu ireki, parte-hartzaile eta demokratikoa. Europa alternatibo bat eraiki behar da; egun sufritzen duen demokrazia ezari aurre eginez.

–Herritarrek izan behar dute Europaren eraikuntzaren subjektua. Horretarako, adibidez, herri ekimen legegilea posibilitatu ahal izateko, oinarritzkoa da arauak aldatu eta prozesua erraztea, eta beharrezkoa da herritarrek erabakien hartzean parte hartu ahal izateko mekanismoak martxan jartzea (kontsulata, erreferendumak, etb.). Europar Batasunak eraldaketa demokratikoa behar baitu.

–Erabakitzeko eskubidea. Ezinbestekoa da estatu berrien onarpenerako bermeak sortzea.

EH Bildutiki Euskal Herriak bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatu behar dugu. Euskal Herria eta Europar Batasunaren arteko harreman zuzena, bitartekaririk gabea, aldarrikatzen dugu.

–Gatazkaren konponbidea eta bakearen eraikitzea. Euskal demokrazia eraikitzeko momentua iritsi dela adierazi nahi dugu; 50 urteko gatazka armatuak utzi dituen ondorio mingotsak gaindituz.

Momentu hauetan estatuak euskal gizartean sortutako esperantza aroa itzaltzeko helburua dute. Gure herriak duen bake eta demokrazia beharra aldarrikatuko ditugu.

Euskal Herrian irekitako aro politiko berriaren berri eman nahi dugu. Orain artean EBk jokatu duen papera nahiko genukeena baino apalagoa izan bada ere, ezin dugu ahaz-

tu 2006. urtean Parlamentuak babestutako adierazpena edota Friendshipak burutu duen lana azken urteetan. Bruselaren inplikazio maila areagotzeko, agertoki horretan gure presentzia izateak garrantzia handia izan dezake.

Gure koalizioak eskua zabaltzen die, eraldaketa sozialaren aldeko lan amankomun bat eginez, Herrien Europa eraldatzaile bat sortu nahi duten indar guztiei.

Dagoeneko aiopatu ditugun oinarriak kontutan izanik, inor baztertu gabe eta bakoitzak izandako ibilbidea errespetatuz, hautagaitza konpartitu bat sortzeko prest gaude.

Beraz, aurrean dugun erronkari aurre egiteko, indar politiko desberdinekin harremanetan jarriko gara.

## Horregatik guztiagatik, gure hautagaitza...

**N**ahiz eta egungo panorama ezkor ikusten bada ere, hurrengo urteetan aldaketa handiak gerta daitezke Europar Batasunean. Estatu berriak sortzeko atea parez pare daude irekita. Neoliberalismoaren eskutik etorri diren eskubide eta askatasunen murrizketen aro ilunari amaiera emateko aukera probestu behar dugu, ezkerreko soberanistok defendatzen dugun Europar alternatibo hori lortzeko pausu sendoak emanez.

Ezinbestekoa da gure indarrak biltzea, inork aukeratu ez dituen elite bazuen nahiak astetzen dituen modeloa eraitsi, eta herritarren beharrei erantzungo dien eredu berri bat sortu ahal izateko